

Ordizian, **2010eko uztailaren 23an**, UDALBATZA elkartu da Udaletxe honetako bilkura-aretoan **OHIKO** bilera egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

UDALBURUA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jon Txurruka Etkezaretza jn.	EAJ/PNV
Belen Maiza Urrestarazu and.	EA
Iban Asenjo Garde jn.	EA
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE (PSOE)
Jose J. Lopez Fernandez jn.	PSE-EE (PSOE)
Mikel Leunda Semperena jn.	EB-Berdeak/Aralar
Carlos Gonzalez Astiz jn.	EB-Berdeak/Aralar
Monica Marañon Basarte and.	PSE-EE (PSOE)
Iñigo Manrique Cía jn.	PP

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta and	EAJ/PNV
Miren Auzmendi Urkiola and.	EAJ/PNV

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta and.

KONTU HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2010eko ekainaren 25ean egindako ezohiko bileraren akta onartzea.
..... 3. or.
- 2.- Ezker Batua/Aralarrek 'Heldu' zerbitzua kentzeari buruz aurkeztutako mozioa.
..... 4. or.
- 3.- Intsausti Plazako 4. eta 5. zenbakietan bidegorria egiteko lur-zerrenda baten lagapena onartzea.
..... 8. or.
- 4.- 'Victor Mendizabal' beka emateko oinarrien deialdia.
..... 17. or.
- 5.- 2010erako funtzionarioen ordainsarien murrizpena egokitzea.
..... 10. or.
- 6.- 2010erako alkateen, zinegotzien, eta alderdi politikoen ordainsarien murrizpena egokitzea.
..... 15. or.

PREMIAZKOTASUNEZ AZTERTUTAKO GAIAK:

- .- Majori Kiroldegiari abala ematea onartzea
..... 18. or.

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK.

- .- Osoko bilkuren ordua aldatzea.
.- Bidegorriaren ibilbideari eginiko proposamenak / Bota diren 7 zuhaitzei buruzko argipenak.
.- Oianguren proiektua.
..... 20. or.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8:10

AMAIERA ORDUA: 10:20.



Bilkurari hasiera eman aurretik, alkate jaunak esan du eguneko aztergaien azken puntuaren ondoren, eta 'galde-eskeak' puntua baino lehen, geroago azalduko duen premiazkotasuneko puntu bat sartu asmo duela, egoki irizten bada.

Jarraian, eguneko gai-zerrendako lehen puntua irakurri da.

1.- 2010eko ekainaren 25ean egindako ezohiko bileraren akta onartzea.

Proposamena

2010eko ekainaren 25ean egindako ezohiko bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Asenjo jn.

Aipatu bilkuran idazkari lanak bete zituen Administrazio Orokorreko Teknikari (AOT) Jon Amondaraini eskerrak eman zizkion aktan alkate jaunak bere aurka esandako hainbat 'hitz itsusi' jaso ez izanagatik. Alkateari eskatu dio publikoki barkamena eskatzea.

Alkate jn.

Asenjo jaunari esan dio berak Iban Asenjo jaunari hitz egin izan bazion, osoko bilkura bukatuta izan zela.

Leunda.jn.

Adierazi dio, aktan, 'galde-eskeak' puntuan, 25. orrian, Emilio Alvarez jaunaren afera nola dagoen galdetu zuenean, esan zuela hasiera batean Leunda jaunari esan zitzaioela Alvarez jauna egoerarekin ados zegoela, eta gerora jakin denez, ez dela horrela. Esan du aktan hori ondo jasota dagoela, baina Joxe Arizmendi jauna (aurreko legealdiko zinegotzia) aipatzen dela. Bere iritziz, hutsegitea da, edo izena gaizki ulertua, izan ere berak ez zuen Arizmendiren aipamenik egin. Euskarazko aktan ere berdin jaso da.

Hutsak zuzendu dira.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (Manrique jauna eta Marañon andrea ez zeuden bileran).

Udalburuak, horrenbestez, proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 2. puntuari heldu dio:

2.- Ezker Batua/Aralarrek 'Heldu' zerbitzua kentzeari buruz aurkeztutako mozioa.

Proposamena

2002. urtean, Eusko Jaurlaritzaren aho bateko mandatuz, eta Immigrazioari buruzko lehen Euskal Planaren eskutik, EAEn etorkinei lehen harrera egiteko udal-egitura bat, Espainiako estatuan aitzindaria, ezarri zen. Horretarako, eta beste hainbat baliabide publikoren artean, HELDU Zerbitzua jarri zen abian. Honek, udal bakoitzeko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta, etorkinei zuzendutako banakako prozedura ezarri zuen. Halaber, lege-aholkularitza espezializatua ematen die, beren egoera erregularizatzeko, lan-merkatuan txertatzeko, eta udalen gizarte-zerbitzuekiko mendekotasuna eta irregulartasun administratiboak saiheste aldera. Zerbitzu horren aholkularitza-eginkizunak administrazioaren baimenak lortzeko prozesuan inplikaturik zeuden eragile guztiak hartzen zituen barne: gizarte-langile, enplegu-emaileak, eta abar.

HELDU programa hiru lurralde historikoetan abian jarrita, aipatu programak udal eta instituzio guztien premiak bete ditu, eta immigrazioaren inguruan euskal politika bateratua, ez soilik udalena, kudeatzeko oinarritzko tresna izan da. Sortu zenetik, 34.000 espediente landu dira; horrek agerian uzten ditu HELDUren funtzionamenduak sortutako interes publikoak.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako gaur egungo Enplegu eta Gizarte Gaietarako Departamentuak HELDU bertan behera uzteko erabakiaren berri eman du hedabideen bitartez. Horrek, krisi ekonomiko larria pairatzen ari garen honetan, gizarteko sektorerik ahulenetako bat inolako babesik gabe uztea ekarriko luke. Horrez gain, zerbitzua bertan behera uzteak ekarriko du atzerritarrak izapideak berak bakarrik egin behar izatea, nondik nora jo aholkatuko dion kalitatezko zerbitzu publiko baten babesik gabe. Egoera horrek, gizarte-zerbitzuen kronifikazioa ekarriko du, lan-munduan sartzea zailduko du, eta EAeko immigrazio-politika zatikatuko du; izan ere, aurrerantzean udal bakoitzak bere kabuz egin beharko dio aurre errealitate horri.

Herritar guztiek hezkuntzan, osasunean, eta beste hainbat arlotan pairatuko duten murrizketei orain HELDU zerbitzua (gizarte-zerbitzuen oinarritzko sostengua) murriztu izana gehitu beharko zaie. Etorkinen erregulazioaren alde ez egiteak ondorio kaltegarriak ekarriko dizkio gizarteari oro har, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna egokirik gabe geratuko baita.

Horregatik guztiarengatik, Ordiziako Udalaren osoko bilkurak honako honetara premiatzen du Eusko Jaurlaritza:

HELDU zerbitzua ixteko erabakia baliogabetzera, eta Immigrazioari buruzko III. Euskal Planera bitartean hausnarketarako tartea irekitzera, eta zerbitzuari eustea aipatu Planean zerbitzua zehaztu bitartean.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Astiz jn.

HELDU zerbitzua desagertzeak zentzurik ez duela esan du, eta are gehiago etorkin asko dagoen une honetan eta egoera dugun hau izanda. Bere iritziz, kontu bat da zerbitzua murriztea, eta bestea zerbitzua kentzea.

Dubreuil jn.

Mozioaren edukiaren zati batekin bat dator; hau da, etorkinen kolektiboa oso ahula dela, beste hainbat kolektiboren antzera (langabetuak, lanerako sarbiderik ez duten emakumeak, eta abar).

Orain arte gai horren inguruan lan egin dutenen profesionaltasuna ere azpimarratu nahi du.

Hala ere, ez dator mozioarekin bat horrek aipatzen duenean etorkinen kolektiboa 'inolako babesik gabe' uztea ekarriko lukeela. Bere iritziz, etorkinak, paperak eduki nahiz ez, ez daude babesik gabe: gizarte-segurantza dute, medikuaren laguntza dute, laguntza ekonomikoak. Bere iritziz, gehiegizkoak dira mozioan erabiltzen diren terminoak.

Mozioan hainbat ilara, paperak bideratzeko leku desberdinak aipatzen dira. Bere iritziz, hori gezurra da.

Gizarte Zerbitzuek, Biltzenek eta immigrazio arloko bestelako erakundeek ez dituzte etorkinak bakarrik utziko, HELDU desagertu nahiz ez.

Zerbitzu publikoak ez ditu bazter utziko.

Mozioan erabilitako beste termino bat: 'Udalak berak bakarrik eman beharko die arreta'. Ez dut uste hori ere egia denik. HELDU desagertzetik prestazioak emateko sistema orokor eta unibertsalak ezartzera bitarte horretan beharbada aldatetako eta oreka eza egongo dira, baina soilik ezarpen edo egokitzapen hori egin bitartean.

Dubreuil jaunak LANBIDE, Aldundia eta beste hainbat instituzio aipatu ditu; horrenbestez, udal honek, eginkizun horretan, ez du inola ere bere burua bakarrik ikusten.

HELDU zerbitzuak lagun egiten du, ez du etorkinaren egoera erregularizatzen. Eusko Jaurlaritzak entitate horren edo beste batzuen laguntza-mota indartzeko asmoa du.

Gizarte Zerbitzuen Legea Parlamentuan onartu zen EBalderdiaren aldeko botoarekin. Lege honetan ez zen berariazko ezer onartu etorkinentzat.

Ez dio HELDU enpresari sostengurik ematen eta ez du haren kontra egiten.

Hala ere, bere iritziz hiru urte daramatza udalaren eskumenekoak diren zenbait zerbitzuren (Eguneko Zentroa, etxez etxeko laguntza, eta abar) inguruko kritika pairatzen EB/ARALARen aldetik. Orain defendatzen ari da betidanik sistema gisa kritikatu izan duten hori. HELDU enpresa pribatua da, esleipena tarteko, alegia zeharkako kudeaketaz, administrazioarentzat lan egiten duena. Bera ez dago enpresa horren aurka, eta ez du bere lana kritikatzeko, baina ez du oso ondo ulertzen zenbait kasutan haren aldeko defentsa eta kritikarik bortitzena besteetan EB/ARALAR alderdiaren partez.

Gonzalez jn.

Bere iritziz, erabilitako terminoen maila eztabaidagarria da. Alabaina, zerbitzu bat kentzen eta etorkinen kolektiboak babesik gabe eta GKEen esku uzten dela irizten dio. Orain arte, berriz, hori guztia leku bakar batean zentralizatzen zen; aurrerantzean, ordea, laguntzarekin edo laguntzarik gabe, etorkina 20 lekutatik pasa beharko du.

Azpikontrataturako zerbitzua ez da 'eredu ideala', baina aitortzen du zenbaitetan norbere ideiei amore eman behar zaiela zerbitzuren baten alde.

Dubreuil jn.

Berriro ere esan du ez dagoela atentziorik eza. Udaleko Gizarte Zerbitzuek orientazioa eta laguntza ematen diete pertsonari, eta ez ditu behartzen 20 leku desberdinetatik pasatzera. Arazo zehatzaren arabera, hiritarra dagokion entitatara edo instituziora bideratzen da bere arazoa konpontzeko.

Laguntza bermaturik dago. Etorkinek beti dute gizarteratze-bermea, gizarteratzeko hitzarmenak; beraz, ez dago halako atentziorik eza.

Dubreuil jaunak zerbitzuaren zeharkako kudeaketari egindako kritika mozioa izenpetu duen Leunda jaunagatik da. batez ere.

Azaldu duenez, HELDU enpresa EB/ARALAR koalizioko ordezkariaren batek eratua da.

Leunda.jn.

Uste osoa du zerbitzu publikoetan, eta bere iritziz, zerbitzu publiko bat kentzea, zeharka kudeatua izanik ere, txarra da, eta, hala ere, zerbitzuari babesa ematen dio.

Dubreuil jaunaren justifikazioa 'baldarra' dela irizten dio.

Dubreuil jn.

Bere iritziz, nahi dena defenda daiteke, baina gezurrik, manipulaziorik gabe; izan ere, horixe baita benetan 'baldarra'. Agerikoa da etorkinak ez direla bakarrik geratzen; arreta jasotzen du, zerbitzu publikoek emana, nahiz entitateek emana.

Leunda.jn.

Erantzun dio horretan bakarrik geratu direla. EUDELeK eta herritarren % 25ek kritikatu dute. Kontua da neurria Dubreuil jaunak hartu duela bere gobernuaren defentsan.

Gonzalez jn.

Ez du ulertzen nola litekeen mozio hori bera Errenteriako Udalak onartu izana, eta, bestalde, baliteke EB/ARALAR izatea HELDUren sustatzailea, baina enpresaren eraketaren aipamenak ez dirudi oso egokia. Ez dute ulertzen zerbitzua bertan behera utzi izana.

Manrique jn.

Abstentziora joko du bere murrizketak egongo direla ulertuta, baina bere iritziz, etorkinen kolektiboa ez da bakarrik geratuko.

Asenjo jn.

Nahiko ados dago aurkeztutako mozioarekin, eta bereziki aipatzen ditu hiru gairen inguruko kritikak:

- 1.- Zerbitzu bat gutxiago etorkinentzat.
- 2.- Etorkinen kolektiboen kritika soziala.
- 3.- HELDUko langileen kritika.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 2, EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE (PSOE) 3)

Abstentzioa: 1 (PP)

Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako 3. puntuari heldu dio:

3.- Intxausti Plazako 4. eta 5. zenbakietan bidegorria egiteko lur-zerrenda baten lagapena onartzea.

Proposamena

2009ko apirilaren 3an Intxausti Plazako 4. eta 5.ean (eraikin bakarra) egindako Ezohiko Batzarretan hartutako akordioen berri eman da. Aipatu Batzarretan, eta bi komunitateetako presidentek 2009ko apirilaren 23an Udaletxean aurkeztutako idazkien bitartez, eta kuoten % 100arekin eta jabe guztien partehartzearekin, Ordiziako Udalarari ibaiarekiko paralelo doan 60,51 m²-ko komunitatearen lur zerrenda bat (ikus honekin batera doan plano) dohainik lagatzea erabaki zen aho batez, bidegorria eraikitze aldera.

Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak 2010eko uztailaren 14an eman zuen oniritziarekin, honako

AKORDIORAKO PROIEKTUA proposatzen da:

1.- Intxausti Plazako 4. eta 5. zenbakietako komunitateen Oria ibaiarekiko paralelo doan 60,51 m²-ko lursail pribatuaren doako lagapena onartzea, bidegorria eraikitze aldera.

2.- Eskritura publikoak formalizatzeko gastua, eta erregistro-gastuak nahiz lagapenak ekarriko duen beste edozein gastu Ordiziako Udalak hartuko ditu bere gain.

3.- Alkatea gaitzea beharrezkoak diren dokumentuak sina ditzan.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Azaldu du iaz hasi zirela 'Nafarroako etorbidea' eta 'Intxausti Plaza' helbideetako atari eta komunitate guztiekin bilerak egiten eta negoziatzen ibaiarekiko paralelo doan lur-zerrenda eskuratzeko, Udaneta ikastetxerainoko bidegorria eraikitze aldera. Ez zen lortu komunitate guztien lagapena, berau komunitateka eta gutxienez bizilagun guztiekin egin behar baita, baina proposamenean aipatutako komunitateen lagapena behintzat onartu nahi da, Urdaneta ikastetxea eta poligonoa San Juan auzoarekin lotuko duen zubia elkartuko dituen bidegorriaren zati bat eraikitzeko.

Asenjo jn.

Esan du Agenda XXIeko Planaren barruan garrantzia eman zaiola bidegorriari, batez ere ikastetxeetaraino doazen tarteei.

Alkate jaunak aipatu bezala, asmoa da ibaiarekiko paraleloan doan Nafarroa etorbidearen atzealde osoan bidegorria eraikitzea. Asmo hori ezin gauzatu ahal izan da bere osotasunean, baina lagapen horrekin, behintzat, tarte handi bat eraikiko da.

Eskerrak eman dizkie aipatu komunitateei.

Zenbait arrazoi tarteko, gaia Udalean geldirik egon izana kritikatu du.

Leunda jn.

Abstentziora joko du, ez proposamenaren aurka egoteagatik, bidegorria eta bestelako proiektu batzuk horren garrantzitsuak izanik, alderdi politiko guztiak aintzat hartu ez direlako, eta guztion arteko adostasuna landu ez delako baizik.

Ordiziako zenbait gunetan ez du bidegorriaren ibilbidea argi ikusten.

Atzo (azkenaldian ez baitator Gai Arrunten Batzordera) bere taldeko bozeramaileari galdetu zion horri buruzko zer informazio eman zen Gai Arrunten Batzordeetan, eta honek erantzun zion ez zela informaziorik eman.

Ondo iruditzen zaio beste foroetan defendatzea gaia, baina baita, alderdi politiko gisa, beraiekin ere.

Asenjo jn.

Ihardetsi dio, berak aitortu bezala, ez dela Gai Arrunten Batzordeetara etortzen. Alabaina, gogora ekarri dio, Maialen Galparsoro andrea batzordeetara etortzen zenean, Asenjo jaunak bidegorriaren planoen gaineko ibilbidearen aurkezpena egin ziola Batzordeari, eta Maialenekin geratu zela ekarpenen bat egin nahi izatekotan egin zezala. Ez du, ordea, deirik jaso, baina, eta gainera, Leunda jaunari informazioa eskaini zaio.

Ez du kritika ulertzen.

Leunda jn.

Badaki prest dagoela informazioa emateko, baina ez da hori bidea. Maialenekin egon zela esan du, baina hori duela 2 urte izan zen. Geroztik gai hori bakarrik aztertzeke ez da bilkurarik egin.

Agenda XXIek proposatutakoa ez da hori.

Asenjo jn.

Berriro ere azpimarratu nahi du teknikariek, taldeek nahiz gai bakarreko foroek elkarrekin egindako proposamena dela, eta ondoren Agenda XXIeko Foroan; honen lehen bilerara Galparsoro andrea joan zen, ez Leunda jauna, eta, hala ere, bigarren bilerarako kritikatzan hasi zen.

Leunda jn.

Esan du ez dela Agenda XXIeko bileretara joaten foro horretan nahi dena egiten delako. Alabaina, zinegotzia den aldetik, eskubideak dituela dio, eta gai bakarreko saioak Udalean egin behar direla.

Hasiera batean bidegorria Gudarien Etorbideko heskaitik zihoan. Hori aldatu egin da, eta ez daki zergatik. Aldundiaren ALP bat dago, eta finkatutako ibilbideari eusten zaio.

Idazkari and.

Manrique jaunari erantzun dio, honek gai juridikoa nola dagoen galdetuta, galdetuz lagapena 'jabetzakoa' den. Erantzun dio 'jabetzakoa' dela, eta osoko bilkurak lagapena onartuta, lehenik lur-zerrenda horren banantzearen eskriturak egin eta erregistratu beharko dela komunitatearen ondare pribatibo komunitarioaren zati gisa, eta, ondoren, bidegorria eraikitzeke aipatu lursailaren jabetzapeko lagapen formala egin.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (IU/EB-ARALAR)

Udalburuak, horrenbestez, proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, udalburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuari heldu dio:

5.- 2010erako funtzionarioen ordainsarien murrizpena egokitzea.

Proposamena

ORDIZIAKO UDALEKO OSOKO BILKURAREN AKORDIO PROPOSAMENA, MAIATZAREN 20ko 8/2010 ERREGE LEGE DEKRETUAREN ONDORIOZ DEFIZITA MURRIZTEKO NEURRIAK APLIKATZEARI BURUZKOA

AZALPENA

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak aparteko hainbat neurri jasotzen ditu defizit publikoa murrizte aldera. Murrizpena Europar Batasunak herrialde kideen eta euroaren defentsan emandako erantzun bateratuaren ondorioa da, hainbat herrialdek beren defizitak zuzentzeko eta beren zorra itzultzeko duten gaitasunari buruz dauden zalantzei erantzute aldera. Horri erantzuten diote aipatu Errege Dekretuan jasotako neurriek, helburu nagusietako bat izanik urteko soldata-masa ehuneko bost murriztea.

Zehazki, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuak xedatzen du nazioarteko finantza-krisian

jatorria duen, eta hazkundera eta enplegu onorioak dituen krisi ekonomikoaren gogortasunak ezartzen duen egoera ekonomikoan premiazkoa dela herri-administrazioetako langileria-gastuei eusteko neurriak hartzea. Jarraian aipatzen du helburua dela 'urteko soldata-masa ehuneko bostean murriztea'. Xedatutakoaren arabera, murrizte hori 'nahitaez aplikatu beharko da administrazio guztietan; horrek, aurrezpen nabarmena ekarriko die Autonomia Erkidegoei eta Toki Entitateei, enplegu publikoak horietan duen garrantziari erreparatuta'.

EUDELeko Batzorde Eragileak, herri-administrazioetako langileen ordainsarien murrizketari dagokionez, 2010eko maiatzaren 27an erabaki zuen gainerako instituzioekin (foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) jardun bateratu eta koordinatu garatu behar zela, Errege Lege Dekretuaren helmena eta ondorioak zehazte aldera. Erabaki hori bete beharrez, eta instituzio bakoitzaren desberdintasunei eta ezaugarriei kalterik egin gabe, koordinazio hori izan da lan-ildo nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoan gure berezitasunak nahitaez bete beharreko Errege Lege Dekretua ezartzeari begira nolabaiteko marjinak ematen dizkigula kontuan hartuta.

Hori guztia bete beharrez, jarraian garatzen den akordioaren xedea da soldata-masa urteko % 5 murriztea, eta horren zati bat, besteak beste maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuko 1.2 eta 1.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, langileen ordainsariak murriztuz lortuko da. Aipatu artikuluek Estatuaren Aurrekontu Orokorrari buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legeko 22. artikuluko hainbat atal aldatzen dituzte. Artikulu guztiak oinarritzeko dira, eta halaxe jasotzen da 8/2010 Errege Lege Dekretuko azken xedapenetako bigarrenean esplizituki jasotakoaren arabera.

Aurrekoa ezertan ukatu gabe, eta neurri hori betetzeari dagokionez, zentzuzkoa da interpretatzea, gainerako euskal instituzioek egindakoaren arabera, ordainsarien murrizketa gehikortasun irizpidea ezarrita egitea, ordainsari altuenak portzentaje handiagoan murrizte aldera. Horretarako, ordainsari-taula berria finkatu da, gainerako instituzioetan bezala, aipatu gehikortasuna kontuan hartzen duena. Gehikortasun hori bera ezar lekieke langileei, Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa (UDALHITZ) kontuan hartuta. Horretan oinarrituta, lan-baldintza berberak ezartzen dira langileentzat eta funtzionarioentzat, eta beraz, II. tituluko 64. artikuluan eta ondorengoetan esplizituki jasotzen da funtzionarioek duten ordainsari-egitura baliokidea langileentzat, ordainsari-konzeptu berdinak dituenak.

Horretatik guztitik ondorioztatzen da zentzuzkoa dela murrizketa gehikor berberak ezartzea bi kolektiboei.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren ondorio diren aparteko neurri horiek hartzeak Ordiziako Udalarari eskatzen dio eraginkortasunez ezartzea ahalbidetuko duten hainbat neurri hartzea, Akordio honen edukian zehaztutakoak hain zuzen ere. Ildo horretan, ezinbestekoa da, 8/2010 Errege Lege Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen akordioa (UDALHITZ) 2010eko ekainaren 1etik aurrera hein batean etetea maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua eta honako Akordioa, eta zehazki ekonomi arloko neurriak ezartzeko ezinbestekoak diren baldintzetan.

2010eko ekainaren 22an, eta, gerora, 2010eko ekainaren 30ean, EUDELek UDALHITZeko Interpretazio, Adiskidetze eta Bitartekaritza Batzorde Parekidea deitu zuen, informazioa emateko, eta, hala bazegokion, sindikatuekin arlo honetan Errege Lege Dekretuaren ondoriozko neurriak eta irizpideak, Akordio honetan

jasoak, negoziatzeko, eta Akordioa adierazitako baldintzetan hein batean etetea negoziatzeko. Aipatu Batzordean ez zen akordiorako aukerarik izan.

Jarduera hori bera egin da Ordiziako Udalean 2010eko uztailaren 14an. Alde sozialak denbora gehiago eskatu du akordioa sakonago aztertze aldera.

Horren guztiaren arabera proposatzen da honakoa:

AKORDIOA

LEHENA.- Ordiziako Udalak maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legean eta aplikatzeko araudi autonomikoan oinarritako izaeraz xedatutakoa betetzeko, beharrezko neurriak hartuko ditu, 2010. urterako bere aurrekontuetan I. Kapitulan murrizketa izaera orokorrez ezartzea lortzeko xedez

Murrizketa hori soldata-masaren %5ekoa izango da urteko. Horrenbestez, eta kontuan hartuta neurriak 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioak dauzkala, murrizketa % 2,86an zehaztuko da 2010eko ekainetik abendura bitarteko aldirako; portzentaje hori adierazitako % 5 horren zortzi hamalauren aplikatuz lortzen da, urteko terminoetan.

BIGARRENA.- Arestian adierazitakoa aplikatzeko, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileek 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioetarako jaso beharreko oinarritako ordainsariak maiatzaren 20ko 8/2020 ED Legeko 1.2 eta 1.3 artikuluek jasotzen dituzten koadroetan agertzen direnak izango dira; aipatu artikuluek Estatuko Aurrekontu Orokorretako abenduaren 23ko 26/2009 Legeko 22. artikuluko bi eta bost atalak aldatzen dituzte.

HIRUGARRENA.- Soldatak murrizteko neurriak Udalean dauden ordainsari-mailen artean progresibitate-irizpideekin aplikatuko direla bermatzeko xedez, administrazio langileek ondorengo taulan zehaztutako portzentajearen izango dute murrizketa (orientazio-taula, I ERANSKINA UDALHITZ):

MURRIZKETEN TAULA. MAIATZAREN 20ko 8/2010 ELDren EZARPENA

UDALHITZen MAILAZ GORAKO ORDAINSARIAK	2010eko ORDAINSARIAK	% murrizketa ezarpen aldirian	Urteko % murrizketa baliokidea
	70.000,00 €	2,86	5,01
	65.000,00 €	2,78	4,87
UDALHITZen MAILAK	2010eko ORDAINSARIAK	% murrizketa ezarpen aldirian	Urteko % murrizketa baliokidea
30	61.257,34 €	2,72	4,76
29	59.547,58 €	2,68	4,69
28	57.837,42 €	2,62	4,59
27	56.127,26 €	2,55	4,46
26	54.418,32 €	2,48	4,34
25	52.707,46 €	2,38	4,17
24	50.997,43 €	2,25	3,94

23	49.287,01 €	2,20	3,85
22	47.577,93 €	2,15	3,76
21	45.867,22 €	2,10	3,68
20	44.157,61 €	2,05	3,59
19	42.447,44 €	1,97	3,45
18	40.737,54 €	1,91	3,34
17	39.027,25 €	1,86	3,26
16	37.317,22 €	1,82	3,19
15	35.607,20 €	1,81	3,17
14	33.897,16 €	1,73	3,03
13	32.187,26 €	1,65	2,89
12	30.703,14 €	1,55	2,71
11	29.219,30 €	1,05	1,84
10	27.735,30 €	0,95	1,66
9	26.251,44 €	0,78	1,37
8	24.870,67 €	0,68	1,19
7	23.490,18 €	0,56	0,98
6	22.129,69 €	0,56	0,98
5	20.769,20 €	0,56	0,98

Oharra: Taula horretan ez da antzintasunik kontuan hartu.

Irizpide hori ezartzeko xedez, lehentasunez erabiliko da aurtengo abenduko aparteko ordainsaria. Ondorio hauetarako, aparteko ordainsariari dagokion kopurua ezarriko zaio aplikatze aldiari dagokion guztizkoa murriztu arte. Kopuru hori kalkulatzeko, arestiko taulako murrizte-portzentajeak erabiliko dira, maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legeko 1.2 eta 1.3 artikulua ezartzearen ondoriozkoak kendu ondoren.

LAUGARRENA.- Aldi bateko langileei, konfiantzako karguei, enplegu-funtzionarioei eta langile parekatuei antzeko ordainsaria jasotzen duen enplegatu publikoari aplikatutako portzentaje bera murriztuko zaie beren ordainsarietan.

BOSGARRENA.- Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa (UDALHITZ) partzialki bertan behera uztea erabaki da 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioetarako. Ordiziako Udalak 2008ko abenduaren 18an egin zuen bat akordioarekin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, eta udaleko langileentzat alde aurretik aitortutako baldintzarik onenei utsiz, maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legea eta Erabaki hau eta, zehazki, eduki ekonomikoko neurriak zuzen aplikatzeko beharrezko terminoetan.

SEIGARRENA.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, maiatzaren 20ko 8/2010 ED Legean jasotako langile-kostuak murrizteko neurriak aplikatuzetik lortutako baliabideen xedea izango da Instituzioaren egoera ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera jarduteko neurriak hartzea.

ZAZPIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematen zaio bere karguaren eskuduntzak gauzatzeko, beharrezko gertatzen diren neurriak har ditzan erabaki hau eraginkortasunez betetze aldera.

ZORTZIGARRENA.- Erabaki hau EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari helaraziko zaio.
.....n, 2010eko ekainaren(e)an.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Pedro Irastorza jn.

ELAren ordezkari eta osoko bilkuran dagoenak akordioa irailera arte atzeratzea, eta Ordiziako Udalean oraindik osatu ez den Udalhitzaren Jarraipenerako Batzorde Parekidea eratzea eskatu du.

Irastorza jaunaren iritziz, gaia Batzorde Parekidean aztertzeko tramite formala ez da bete, eta, horrenbestez, forma-akatsa dago.

Gonzalez jn.

Proposamenaren aurka bozkatuko du.

Bere iritziz, krisia ez dute administrazio publikoko langileek eragin. Aberatsak gerrikoa estutu behako zuten.

Kapital-eragiketak zigortzen direnean ulertuko du kargu publikoen soldata berraztertzea, baina ez funtzionarioei soldata jaistea. Ez du horrek izan behar neurri bakarra.

Konpromiso sinatua badago, ezin da hankaz gora bota hitzartutakoa. 200+-2010 hitzarmenari buruz ari da.

Bestalde ez dago aldi baterakotasun konpromisorik. Hasiera batean neurria mugagabea da.

Horregatik, nahi izanez gero akordioa ez betetzea badagoela konbentzitu nahi du.

Auzitegi Gorenak Errege Dekretu Legearen aurka egitea izapidetzea onartu du.

Dubreuil jn.

Ez zekien Batzorde Parekidea eratu beharra zegoela. Baina, bere iritziz, nahiz eta murrizketak ez diren inoren gustuko, Europako herrialde guztietan ari dira egiten, eta hemen ere egin beharko lirateke; izan ere, Europaren zuzentarauak baitira. Aipatu neurriek, gustukoak ez izanagatik ere, ustez krisia arintzen lagunduko dute.

Halaber, eskatu du soldaten murrizketarekin aurreztuko den diru hori zertan gastatuko den argitzea; izan ere, hasiera batean guk ez dugun 'geldikin negatiboa' estaltzeko, edo azertu beharko liratekeen inbertsioak egiteko erabiliko bailitzateke. Era berean, bere iritziz, gure herrian, ezarri beharreko neurri horiek guztiak krisiari aurre egiteko mahai batean adostu eta eztabaidatuko lirateke. Batzorde Parekidea eratzearen aldeko agertu da.

Maiza and.

Bere iritziz, Adiskidetze Batzorde Parekidea eratu beharra dago.

Horrez gain, ez dago ados hartu beharreko neurriarekin, kate honetan beti berberak ordaintzen baitu, eta gainera neurri hau ez ezik, beste batzuk ere aztertu beharko lirateke.

Akordioa atzeratzea eskatu du, denbora gehiago izateko.

Alkate jn.

Bere hitzetan egia da Batzorde Parekidea ez dela formalki osatu, baina Langileen Batzordeari informazio osoa helarazi zaio. Bere iritziz, gaia atzeratzeak ez garamatza inora.

Manrique jn.

Ados dago eztabaidaren ondoren gaia irailera arte atzeratzearekin.

Jarraian, gaia irailera arte atzeratzea bozkatu da.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (IU/EB-ARALAR)

Gaia hurrengo bileran aztertuko da.



Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.

6.- 2010erako alkateen eta zinegotzien, eta alderdi politikoaren ordainsarien murrizpena egokitzea.

Proposamena

MAIATZAREN 20KO 8/2010 ERREGE DEKRETU LEGEAREN ONDORIOZ DEFIZITA MURRIZTEKO NEURRIAK EZARTZEA.

Proposamen hori EUDELen Batzorde Eragileak onartu zuen 2010eko ekainaren 17an. Maiatzaren 20ko 8/2010 EDLren ondorioz ezar daitezkeen neurriak arautzen ditu, eta, zehazki, administrazio publikoetako langileei soldata-murrizketa nola ezarriko zaien. Oroitarazi da, ekainaren 8an jakinarazitakoaren arabera,

maiatzaren 20ko 8/2010 EDLk 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioak dituela; hortaz, uztaileko nominan egin beharreko doikuntza jaso beharko litzateke.

Halaber, jakinarazi zaie EUDELen aipatu Batzorde Eragilean, alkateen eta zinegotzien soldatak murriztearen inguruan, honako gomendio hau onartu zela:

- Alkateen soldata: oro har, bere udaleko langileari ezarriko zaion murrizketa handienari dagokion portzentajearekiko portzentaje-puntu bat gehiago murriztea proposatzen da.

- Zinegotzien soldata: oro har, administrazio publikoko langileari ezarritako portzentajea murriztea proposatzen da, kontuan hartuta bere soldata zein ordainsari-mailari dagokion.

.- DIRU-LAGUNTZAK ALDERDI POLITIKOEI: % 5,87

.- ARLOETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIEN DIETAK: % 5,87

.- ARLOETAKO ORDEZKARIAK EZ DIREN ZINEGOTZIEN DIETAK: % 5,87

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

EUDELek kargu publikoen soldata jaisteko egin duen proposamena azaldu du. Zehazki, alkate jaunak udalean gehien kobratzen duen funtzionarioari ezarriko zaion jaitiera baino % 1 gehiago jaistea proposatu du.

Asenjo jn.

Puntu hau ere irailerako uztea proposatu du.

Gonzalez jn.

Bat dator proposatzearekin, baina oraingo honetan proposamenaren alde agertu da. Neurri eredugarria da.

Dubreuil jn.

Bere iritziz, proposamen honek krisiaren aurkako mahaian adostuko diren neurriekin batera joan beharko luke, eta esan eta aztertu beharko litzateke zer egin neurriarekin lortuko litzatekeen aurreztearekin.

Kontu-hartzaile jn.

Aurreztu beharko dela esan du.

Dubreuil in.

Hori ikusteko dagoela erantzun dio, erabaki politikoa izango dela, baina, nolana ere, kontu-hartzailearen lana aintzat hartzen duela, gaur egun udalak ekonomi osasuntsua baitu.

Kontu-hartzaile in.

Erantzun du politikarien konpromisoa eta lana ere izan dela.

Jarraian, puntua bozkatu da.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Proposamena onartu da.



Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.

4.- 'Victor Mendizabal' beka emateko oinarrien deialdia.

Proposamena

Herriko seme Victor Mendizabalek Ordiziako Udalari herriko gazteen hezkuntzan laguntzeko helburuarekin akziotan egindako dohaintza ekonomikoaren berri eman du.

Dohaintza horretatik eta aipatu akzioetatik Udalak, Victor Mendizabal Fundazioaren izaerarekin bat, 7.000 euro erabiltzea erabaki du VICTOR MENDIZABAL izena daraman beka bat antolatzeko, Ordiziari buruzko azterlanak egite aldera.

2010eko uztailaren 14ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako akordio-proiektua hartzea proposatu da.

1.- VICTOR MENDIZABAL izena izango duen beka emateko oinarriak eta deialdia onartzea. Beka 7.000 eurokoa, eta bi urtekoa izango da; hau da, 2010-2012.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Maiza and.

Esan du herriko seme Victor Mendizabalek Iberdrolaren hainbat akzio utzi zizkiola udalari 'haurrak eskolatzeko'. Bere garaian, beharbada, haur asko egongo zen eskolatu gabe, baina gaur egun ez da halakorik gertatzen.

Halaber, dohaintzan balioeste-batzorde bat sortzea aipatzen da, eta gaur egun, kontuan hartuta ez dagoela arrazoirik haurrak eskolara ez joateko, dohaintzaren xedearen izaera eguneratzea eta beste ikuspegi bat ematea pentsatu da. Ongilearen asmoa indargabetu gabe, Ordiziari buruzko, edozein gairi buruzko ikerketa-beka bat sortzea egingarri iritzi zen. Bekak bi urteko iraupena izango du.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, alkate jaunak Majori Kiroldegiari, honek 300.000 €-ko mailegua eskatu ahal izateko, abala ematea onartzeko puntua sartzea proposatu du.

7.- Majori Kiroldegiari abala ematea onartzea

Jakinarazi da Majori Kiroldegia SLk 300.000 euroko mailegua kontratatu beharra daukala, kiroldegiko energia-instalazioko lanak finantzatzeko.

Halaber, eta mailegua kontratatzeko aukerak aztertzeko Kutxarekin harremanetan jarrita, finantza-erakunde horrek baldintza bat jarri dio eragiketari; hau da, udalak Majori Kiroldegia SLren aldeko abala ematea.

Hori dela-eta, honako akordio-proiektua hartzea proposatu da

AKORDIORAKO PROIEKTUA

1.- Majori Kiroldegia SLri abala ematea 300.000 euroko mailegua kontratatzeko; hortaz, udalak bere gain hartuko du Majori Kiroldegia SLk kitatuko ez duen finantza-zama.

Proposamena onartzeko beharrezkoa den gehiengoa: Soila.

Alkate jn.

Premiazkotasunez aurkeztu da abuztuan ez delako osoko bilkurarik egiten, eta adostutako inbertsioen artean Majoriren energi aurrezpena ez dagoelako: kogenerazioa. Hori dela-eta, ezinbestekoa da 300.000 €-ko mailegua eskatzea.

Jarraian, gaia premiazkotasunez aurkeztu izana bozkatu da.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Horrenbestez, alkate jaunak premiazkotasuna ontzat eman du.

Eztabaida.

Udalburuak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Txurruka jn.

Esan du energia aurrezteko (kogenerazioa), 300.000 euroko inbertsioa egin beharra dagoela, eta horretarako mailegua eskatu beharra dagoela. Majori Kiroldgia SLk mailegua jasoko badu, ezinbestekoa da udalak abala ematea.

Asenjo jn.

Bere iritziz oso garrantzitsua da, eta proiektua garestia izanagatik ere, ados daude eta proiektua finantzatzeko 3 diru-laguntza eskatu dira:

- .- Aldundiari; ezetsia izan da.
- .- Energiaren Euskal Erakundeari (EEE); erabakiaren zain.
- .- Eusko Jaurlaritzari; hau ere erabakiaren zain.

Bozketa

Bozketa eginda, honako emaitza izan du:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2, PP 1)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Udalburuak, horrenbestez, aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.

8.- Galde-eskeak

- Mikel Leunda jaunak berriro ere eskatu du osoko bilkuren ordua aldatzea, lanean arazoak sortzen baitizkio.

'Oiangu Bizirik' plataformako kide bat, De Juan, bat dator Leunda jaunak esandakoarekin. Berak baimena eskatu behar izan du lanean, eta, horrez gain, edukazio txarrekoa iruditu zaio osoko bilkura ordua 10 minutu geroago hasi izana. Gero hitzetik hortzera darabilte 'herritarren parte-hartzea'.

.....

- Bidegorriaren ibilbideari dagokionez, De Juan jaunak dio beraiek RENFEren geltokitik joatea gomendatu zutela, eta ez herrigunetik. Esan du 'Montañitan' zuhaitzak bota direla, eta gehiago pentsatu beharko genukeela horrek udalerrian izango duen eraginean.

Horrez gain, esan du egona dela Aldundian bidegorriaren ibilbideaz arduratzen denarekin. Zazpi zuhaitz bota dira, eta ez da bakar bat ere landatu.

Asenjo jaunak esan dio bidegorriari buruz nahi duen edozein informazio emango diola, eta proiektua erakutsiko diola, atsegin handiz.

Bota diren 7 zuhaitzei dagokienez, horiek egoera txarrean zeudela, eta 20 zuhaitz baino gehiago landatu direla esan du. Esan dio zuhaitzak ordezkatzearena ez dela, De Juan jaunak esan bezala, inolako 'iruzurrik'.

.....

- Oiangu dagokionez, De Juan jaunaren iritziz udalak ez du apaltasunik erakutsi, eta ez du aitortu proiektuaren porrota eta hutsegitea. Txurruka jaunari eta Santamaria jaunari dimisioa aurkezteko eskatu die, bere iritziz aipatu bi horiek falta dituztelako; apaltasuna eta hutsegiteak aitortzea, hain zuzen ere.

Proiektuaren asmoarekin jarraitzen dute, beren iritziz erraza delako diru publikoarekin egitea.

Dubreuil jaunaren iritziz, plataformak du apaltasun eza. Auzitegiek 4 epai eman dituzte, eta horietako ezein ez da plataformaren aldekoa izan, eta, hala ere, ez dute hanka sartzea eta informazioa manipulatu

izana aitortu. Horrez gain, salaketak egin eta irainak bota dituzte, ez soilik politikarien aurka, baita teknikarien aurka ere.

De Juan jaunak esan du golf-zelaia herri-lurrean jarrita hanka sartu dutela. Neofito deitu dio, eta esan dio hobe lukeela isilik egon.

Dubreuil jaunak esan dio 90eko hamarkadan baserria erabat berria egin zela. Udalaren herri-ondareak bere esku jarraitzen du. Proiektuarekin ados ez egotea bestelakoa da.

Horrez gain, Dubreuil jaunak esan dio plataforma ez zela golaren aurka azaldu, golf-zelaia Oiangun jartzearen kontra baizik.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.